

## “Musiketan” IV. Zikloa

Sarriguren (Valle de Egües-Eguesibar)

### **“MUSIKETAN” IV ZIKLOA**

- 1.- Musikari behar duen lekua eman nahirik eta Ibarreko musikariei laguntzeko asmoz, Eguesibarko Udalak "Musiketan" IV. Zikloa antolatu du.
  
- 2.- Musika mota orotako artista guztiek parte hartzen ahal dute (popa, rocka, jazz, elektronikoa, folka, hevia, kantautoreak, hip hopa, new age, funkya, fusioa edo teknologia berriak), baldin eta taldekide bat gutxienez Eguesibarren erroldaturik badago.
  
- 3.- Zikloa abuztuaren ostegunak, egingen da Sarrigurenen.
  
- 4.- Ekainaren 14a arte Eguesibarko Udaletxean (Sarriguren) ematen ahalko da izena. Eskabideari honako hauek atxiki beharko zaizkio:
  - Taldearen txosten artistikoa.
  - Kideen zerrenda, bakoitzaren NAN edo egoitza agiria jarririk.
  - CDn grabatutako 2 pieza. Mp3 formatuan grabaturik badaude, helbide honetara igortzen ahal dira: [cultura-kultura@egues.es](mailto:cultura-kultura@egues.es)
  
- 5.- Aurkezten diren taldeen artean Kultur Alorrak 4 hautatzeko proposatuko du, betiere arrazoiak emanik. Horiek izanen dira, hain zuzen, zikloan joko dutenak.
  
- 6.- Eguesibarko Udalak kontzertua ekoizteko eta egiteko gastuak ordainduko ditu (publizitatea, soinu ekipamenduak, teknikariak eta azpiegiturak). Talde bakoitzak egin beharko ditu muntatze eta biltze lanak.

## “Musiketan” IV. Zikloa

Sarriguren (Valle de Egües-Eguesibar)

7.- Eguesibarko Udalak 200 € ordainduko dizkio bakoitzari, 800 € guztira. Zenbateko horri behar diren atxikipenak ezarriko zaizkio.

8.- Lanak aurkezteko testu hau onartu behar da ezinbestean.